

Zerbitzu anitzetako/lorenzaintzako langileen zerrenda osatzeko deialdia, aldi baterako kontratazioetarako.

Deialdiaren oinarriak

1. Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea lorazaintzako langileen zerrenda bat sortzea da, aldi baterako kontratazioetarako Uharteko Udalaren sor daitezkeen beharretarako.

Hautaketa-prozesu hori deialdi honen oinarrietan xedatutakoari eta 29/2/2012ko Langileen Batzorde paritarioak onartutako aldi baterako kontratazioaren kudeaketa-arauei lotuta egingo da, 2012/4/20ko NAO (75. zk.) argitaratuak, edo kontratazioa eginen den unean indarrean dagoen barne-araudian xedatutakoari.

1.2. Udalaren 2. Hizkuntza eskakizuneko (ahozko B2 eta idatzizko B1) euskara maila egiaztatzen duen pertsonak derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak eskatu ahal izango ditu.

1.3. Zerrendak laneko bajak, oporrak eta udal zerbitzuen behar puntualak indartzeko erabiliko dira. Behin-behinean, zerrenda hori lanpostu hutsak betetzeko erabil liteke, betiere kontrataziorako barne-araudia betetzen bada.

1.4. Bete beharreko eginkizunak beren mailari eta kategoriarik dagozkionak izango dira.

1.5. Plazak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen D mailako ordainketa sariak izanen dituzte. Era berean, plantilla organikoak aurreikusten dituen soldata-osagarriak eta hitzarmen kolektiboz lor daitezkeenak jasoko dituzte.

1.6. Lan jardunaldia lanaldi osokoa edo partzialekoa izan daiteke. Horiek guztiak zerbitzuaren beharretara egokituz eta edozein unetan administrazio organo eskudunek aldatu ahal izango dituzte, araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera.

2. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Deialdi honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiarra izatea edo Europako Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea izatea, edo Europako Erkidegoak izenpetu eta Espainiak berretsita nazioarteko itunen aplikazio-eremuan sartutako estatu bateko nazionalitatea izatea, langileen zirkulazio askea aplikatzekoa den estatu batekoa; parte hartu ahal izango dute, halaber, espainiarren ezkontideek eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako nazionalitatea dutenen ezkontideek, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude, baita beren

ezkontideenek ere, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira edo beren kontura bizi diren adin horretatik gorakoak badira.

b) Adinez nagusi izatea eta erretiroa hartzeko adinera iritsi ez izana.

c) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

d) Eskola Graduatua, Lanbide Heziketako lehen mailako titulua edo baliokidea izatea, edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea. Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da.

Kategorian sartzeko bide ematen duten ikasketa baliokideak alegatzen dituzten izangaiek baliokidetasun hori aitortzen duen lege- edo erregelamenduxedapena aipatu beharko dute edo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako ziurtagiria aurkeztu.

d) B gidabaimena edukitzea.

e) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez izatea, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik berezia ez izatea. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek frogatu beharko dute beren estatuko funtzio publikoan sartzea eragozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik ez dutela.

3. Eskabideak.

3.1. Parte hartu ahal izateko eskabideak Uharteko Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko dira, San Juan plaza, 1-1go solairuan kokatua (8:30-14:00 ordutegian), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz. Horretarako 15 egun naturaleko epea izanen da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Eskabidea posta bulego batean aurkeztuz gero, gutunazal irekian egingen da, postako langileek data eta zigilua jar ditzaten, ziurtatu baino lehen. Kasu horretan, posta elektronikoz bidali behar da udalera, onartzeko epea bukatu baino lehen.

Eskabideak deialdi honetako I. eranskinean azaltzen den ereduari lotuko zaizkio. Eskabidean izangaiek adierazi beharko dute hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Eskabide eredu Uharteko Udaleko Erregistro Orokorrean emanen da. Interneten bidez ere eskuratzeko ahalikoa da, helbide honetan: www.huarte.es.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izango da.

Eskabidean atzematen diren akats materialak edo egitezkoak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

3.2. Behar bezala betetako eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia, edo izangaiaren nazionalitatea nahiz nortasuna egiaztatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

b) Eskatutako titulazioaren fotokopia.

c) Euskararen ezagutza egiaztatzen duen dokumentazioa, hala badagokio.

d) Espedientea formalizatzeko eta azterketa-eskubideetarako 5,00 euroko tasa ordaindu izanaren ziurtagiria. Ordainketa ES59 3008 0087 7414 4756 0721 kontu zenbakian egin behar da, "loratezaintzarako deialdi-tasa" testuarekin. Tasa, ordaindu ondoren, ezin da itzuli. Tasa ordaintzen ez bada, izangaia bazterturik geldituko da. Salbuetsita egongo dira izena emateko unean langabezian daudela egiaztatzen duten pertsonak.

4.- Behin-behineko zerrendak.

Izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda Uharteko Udalaren iragarki oholean eta Udalaren web orrian (<http://www.huarte.es>) argitaratuko da.

Izangai baztertuek bost egun balioduneko epea izanen dute, behin-behineko zerrendak argitaratzen direnetik, erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haiek zuzentzeko.

Izangai baztertuak izan ez badira, behin betiko zerrenda zuzenean argitaratuko da, hautaprobak egiteko eguna, ordua eta tokia adierazita.

5.- Behin betiko zerrendak.

Aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, Alkatetzaren ebazpena emanen da izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak onesteko, eta Uharteko Udalaren iragarki oholean eta Udalaren webgunean (<http://www.huarte.es>) argitaratuko dira, aurreikusitako hautapen proba egiteko data eta tokiarekin batera.

Onartutakoen zerrendetan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatutako betekizunen jabe direnik. Hautagaiek kontrataziorako deia egiten zaienean aurkeztu behar dituzten agiriak aztertuta, ikusten bada garaiz edo forman eskatutako betekizunen bat ez dutela betetzen, interesdunek deialdi honetan parte hartzeagatik izan ditzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

6. Epaimahai kalifikatzailea.

6.1. Epaimahaiak kide hauek izanen ditu:

-Lehendakaria: Alfredo Arruiz Sotés, Uharteko Udaleko Alkatea.

-Ordezkoa: Edorta Beltzunegi López, Uharteko Udaleko zinegotzia.

-Mahaikidea: Nerea Bruñó Artazcoz, Uharteko Udaleko zerbitzu anitzak-lorezaintzako arduraduna.

-Mahaikidea: Isaac Juanco Goñi, Uharteko Udaleko zerbitzu anitzak-lorezaintzako ofiziala.

-Batzordekidea: Xabier Diaz Piñar, Uharteko Udaleko langileen delegatua.

-Batzordekide-idazkaria: Gustavo Jiménez Martín, udaleko giza baliabideen kudeatzailea.

Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da.

6.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta aritu ere, kideen gehiengo osoa bertan ez bada.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, mahaiburuak eta mahaikide-idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

6.3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutako abstentzio-arrazoiak gertatzen direnean, epaimahai kalifikatzaileko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote eta organo deitzaileari jakinarazi.

Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzeko, inguruabar horiek gertatzen direnean.

6.4. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sor daitezkeen arazo guztiak.

6.5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izaten ahalko du proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko eta horietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

7. Hautaketa-prozesuaren garapena:

7.1. Hautaketa-prozesuan, gehienez, 100 puntu lortuko dira, honela banatuta:

1- Test motako ariketa: 30 puntu.

Gehieneko puntuazioa, 30 puntu. Bazterturik geldituko dira 15 puntu baino gutxiago lortzen dituzten izangaiek.

2- Esperientziaren balorazioa: 18,6 puntu.

3- Euskararen ezagutzaren balorazioa: 1,4 puntu.

4- Proba praktikoa; 50 puntu. Garatu beharreko eginkizunekin zerikusia duten proba praktikoa bat edo batzuk egin beharko dira. Bazterturik geldituko dira 25 puntu baino gutxiago lortzen dituzten izangaiak.

8. Proben garapena:

8.1 Hautaketa-probak

8.1.1. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean berean finkatuko dira proba teorikoa hasteko tokia, eguna eta ordua.

Proba bakoitzerako deialdi bakarra egingo da, eta hautagaiek nortasun agiri nazionala, pasaporte edo gidabaimena eraman beharko dute bertara, eta erakutsi horretarako eskatzen dietenean, kanporatzeko eta ezabapen zigorrarekin, salbu eta egintza berean edozein bidetatik nortasuna behar bezala egiaztatzen bada. Probetan oharak kopiatzea eta beste iruzur batzuk egitea baztertzeko arrazoi izango dira berehala, jarduketa penalei kalterik egin gabe, bidezko izanez gero.

Agertzen ez diren izangaiak ere oposiziotik baztertuko dira.

Hautaprobak egiteko, desgaitasunen bat duten izangaiak eskabidean adierazitakoaren arabera denbora eta baliabide aldetik behar dituzten egokitzapenak egingen dira, hala eskatzen badute.

8.1.2. Test motako proba.

Aukera anitzeko zenbait erantzun dituen galdetegi bati erantzun beharko zaio idatziz, II. eranskineko gai-zerrendari buruz, epaimahaiak ariketa hasi aurretik zehaztuko duen denboran. Erantzun zuzena bakarra izan daiteke. Bazterturik geldituko dira gutxienez puntuen erdiak lortzen ez dituzten izangaiak.

Azterketako behin-behineko emaitzen aurka alegazioak aurkeztu ahal izango dira bost egun balioduneko epean, Udalaren web orrian argitaratu eta biharamunetik hasita, eskabidea Udalaren Erregistroan aurkeztuta.

8.2 Merezimenduen kalifikazioa:

8.2.1. Esperientzia: Lan egindako hilabeteen batez bestekoa egingo da.

- Edozein administrazio publikotan lorezaintzako langile gisa lan egin izana: 2 puntu urteko. Gehienez 12 puntu.
- Enpresa pribatuan lorezaintzako langile gisa lan egin izana: 1,5 puntu urteko. Gehienez, 8 puntu.

Lan-esperientzia egiaztatzeko, izangaiak lan-bizitza eta administrazioaren edo enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko dituzte.

Epaimahaiak ezingo du, inola ere, alegatu ez den eta agiri bidez egiaztatu ez den merezimendurik egon dela ziurtzat jo, eta ezin izango du eman, merezimendu horren atal bakoitzeko adierazitako gehieneko puntuazioa baino puntu gehiago.

Epaimahaiak argibideak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu lehiatzaileek alegatutako eta egiaztatutako merezimenduen gainean.

Merezimenduak baloratzeko azken eguna izanen da deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako eguna.

8.2.1. Euskaraz jakitea: Gehienez 1,4 puntu.

– Ahozko eta idatzizko A1 maila: 0,35 puntu.

– Ahozko eta idatzizko A2 maila: 0,70 puntu.

– Ahozko eta idatzizko B1 maila: 1,05 puntu.

– Ahozko eta idatzizko B2 maila: 1,4 puntu.

8.2.2. Merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa bost egun balioduneko epean aurkeztu beharko da, gainditu duten azterketarien emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Emaitzak www.huarte.es webgunean argitaratuko dira.

Merezimenduen balorazioaren aurka alegazioak aurkeztu ahal izango dira, bost egun balioduneko epean, Udalaren webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Horretarako, Udalaren Erregistroan eskabidea aurkeztu beharko da.

8.3. Proba praktikoa:

Proba praktikoa bat edo batzuk egitea, non hautagaiek lanpostuarekin zerikusia duten gaitasunak frogatu ahal izango dituzten.

Gutxienez puntuen erdia lortzen ez duten izangaiak baztertuko dira.

9. Probak egin ondoren, hautagaien zerrenda osatuko da, puntuazioaren arabera. Zerrenda hori Internet bidez ere kontsulta daiteke, helbide honetan: www.huarte.es.

9.1. Berdinketarik gertatuz gero, zozketa bidez ebatziko da.

10. Kontratazio-zerrendak kudeatzea.

Kontratazio-zerrenda hori indarrean dagoena izango da, eta bost urteko iraupena izango du, epe txikiagoan agortzen ez bada edo beste deialdi bat egiten ez bada.

11. Errekurtsoak.

Deialdi honen, bere oinarrien eta hori aplikatzeko egintzen aurka errekurtsio hauetako bat aurkez daiteke, aukeran:

A) Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

B) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

C) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten edo argitaratzen denetik hasita.

Epaimahai kalifikatzaileak emandako egintzen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio deialdia egin duen udal organoari, hilabeteko epean, errekurritutako egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

I. ERANSKINA. Eskabidea. Uharteko Udala. (*maiuskulak eta letra argia)

..... jaun/andrea
adinez nagusia,..... zenbakidun Nortasun Agiri Nazioala (edo
baliokidea den identitate karta) duena,koren(e)an
jaioaen (.....), egungo helbidean
(.....) duena,..... kalea eta posta
kidea. Telefonoak / y e-posta
.....

Azaltzen du:

Uharteko Udaleko Zerbitzu anitzak-lorazaintza izateko ordezkapenak egiteko deialdian
onartua izatea eskatzen dudala.

Ez dudala lanpostuan aritzea galarazten didan eritasun edo akats fisiko edo psikikorik.

Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

Ez naizela diziplina espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia
izan, eta ez nagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

Eskabideak aurkezteko epearen azken egunean eskatzen diren baldintza guzti-guztiak
betetzen ditudala

☐ Euskara maila bat egiaztatzen dut.

Epaimahaiari baimena ematen diola bere sakelako telefonoaren zenbakia erabiltzeko,
mezu bidez jakin dezan hautaprobak non, noiz eta zer ordutan egingen diren.

Azaldutakoagatik,

Eskabide hau onartzea eta aipaturiko deialdian parte hartzea eskatzen dut.

Uharte, 2025ekoren(e)an.

(Sinadura)

II. ERANSKINA. GAI-ZERRENDIA

1. gaia. Belardiak eta soropilak sortu eta kontserbatzeko lanak.
2. gaia. Zuhaiztiak, zuhaixkak, landare bizikorrak eta sasoiko loreak. Espezieak, ezaugarriak, landatzea, ugaritzea, mantentze-lanak, zainketak, gaixotasunak eta izurriteak. Xerolorezaintza. Lorezaintza ekologikoa.
3. gaia. Uharteko udalerriko lorezaintza, baso-ekosistemak eta landare-espezieak.
4. gaia. Ureztatze-sistemak. Instalazioa eta mantentze-lanak.
5. gaia. Makineria eta erremintak. Maneiua eta mantentze-lanak.
6. gaia. Laneko segurtasuna eta higiena.
7. gaia. Berdintasuna. Uharteko Udalaren hizkuntza eta irudi inklusiboaren erabilera arautzen duen ordenantza.
8. gaia. Uharte: biztanleria eta geografia. Kale izendegia, auzoak eta udal bideak. Zerbitzu publikoak. Instalazio eta ekipamendu publikoak. Lorategiak eta parke publikoak.